


Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2001eko martxoaren 23a ● 210. zka.



Grafologia, letratik psikologiara

Jar zaitez profesional
espezializatuen esku.
Zure osasuna gure ardura da.

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE
ZENTRUA



ZERBITZUAK:

Martxoaren 26tik aurrera

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA




Masaje txartelak



Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Telf.: 943 79 95 64 • Gipuzkoa

LEIBAR KARXINDEGIK Mitarte, 1 • Tf. 943 771379 Loramendi, 1 • Tf. 943 791833	ER-RASTI Kioskoa Durana, 19 • Tf. 943 799876
Maritxu Mertzeria Araha Ibilbidea, 24 Tf. 943 79 23 53	GEMES Durana, 40 Tf. 943 799918 EDERTZE ARETOA
Jax HARATEGIA Loramendi, 1 • Tf. 943 79 71 69	Santa Kurtz Janari denda Tf. 943 79 28 19
MartiW BEBERTERIA - BIZI Mitarte, 16 • Tf. 943 79 01 72	IRIARTE Umeen denda eta lenteria Durana, 8 • Tf. 943 79 10 96
FARMA BIZI Loramendi, 8 Tf. 943 771818	TXILARRA ELIKADURA BEREZIA Durana, 35 Tf. 943 79 10 15 Loramendi, 9 Tf. 943 79 44 28
MIREN & ZURINE BIZI Otalora kalea, Eliza aurrealdean Tf. 943 771357	Irudi ELAPANIKETA PELUQUERIA MIXTA Erreka Barren, 20 • Tf. 943 798990
IMANOL JANARI DENDA Gorbea kalea • Tf. 943 79 05 83	HERRASTI AKEITA ETXEA CAFES Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83
ALBOKA Gazte moda Durana, 36 • Tf. 943 771610	Zubia Oinetakoak Peltak • zapatak • gerritxoak Mitarte, 14 Tf. 943 79 16 00
ELECTRONICA RITZORROTZ Automatizazio eta mantentze-lanak • Instalazio elektronikak • Akaratu, antena indutsoak eta parabolikak • Telebista-antena-batek sistema eta kopioak • Sareak digitalak Otalora, 14 • Tf. 943 791610	PAPERDENDA IBER LOTERIA Otalora, 2 Tf. 943 79 79 24
NERIAN LORADENDA Tf. 943 79 70 66	

ARETXARTEk
bi bikoterentzako
bainuetxe batean
astebukaerako egonaldia
zozketatuko du.



2001eko maiatzaren 11n
izango da zozketa




IBARRA ESTANKOA PRENTSA IKASMATERIALA Bizkaia, 3 • Tf. 943 792377	Lasai Masaje terapèutic Postura anatòmica en equilibri Marian Maiztegui Lezama merkatal zentrua Santa Kruz, 24 • Tf. 943 770434
ASENSIO JANTZIDENDA Mitarte, 12 • Tf. 943 79 10 72	JOSU Urdaitegia Gozotegia Kroasantegia Janari prestatuak Mitarte, 1 • Tf. 943 77 03 08
ARETXABAETA ITURGINTZA Durana, 16 • Tf. 943 79 17 53	Sarrad Peluquería y Salón de belleza -LIZATZAK -MIKROPIGMENTAZIOAK -DEPILAZIO ELEKTRIKOAK Loramendi, 11 • Tf. 943 799979
GARBITZE Loramendi 6, Behea • Tf. 943 79 53 61	Etxabe harategia Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61
Jauregi okindegia Otalora, 10 Tf. 943 79 57 47	BEGLADO OPTIKA Loramendi, 10 • Tf. 943 79 98 21
ZENIZ liburudenda Herriko Plaza, 10 Tf. 943 79 57 53	Gertu Jakien elaborazioa eta salmenta Mitarte, 10 • Tf. 943 770612
ALDE ARETXABAETA Murubide IFA Murubide, 4 • Tf. 943 79 91 76	HURRUK Umeondako moda Lezama merkatal zentrua, 15 Tf. 943 77 14 86
MARI KARMEN oinetakoak KONPONKETAK Erreka Barren • Tf. 943 79 59 85	Fruteria Erreka Barren Fruitadenda 943 799643
XUME teladenda Erreka Barren, 14 • Tf. 943 79 11 19	1-10 LORAMENDI, 10 TEL. 943 79 01 26 20550 ARETXABAETA

Mezak emuteko leku barrixai ze erizten dotzazu?



Begoña Intxauspe

Momentuko aldaketa denez, ondo dauela uste dot. Nunbaitten emun biheko die mezak, eta lekua gutxiena dala pentsetan dot.



Daniel Uribetxebarria

Ondo. Ni neu ez naz faten mezetara, baine ondo pentsetan jat.



Marivi Vicente

Lekue ez da arazue. Parrokixia konpondu bittartien, hor edo beste leku baten emutia berdin da.



Eugenio Zubizarreta

Oso ondo. Atzo egon nitzten, eta oso ondo jarri daue. Momentu baterako denez, inok ez lauke kejaik auki biheko.



Isabel Maiztegi

Ez naz askotan mezetara joaten. Elizak konponketa bihera euken, eta leku hori ondo dauela uste dot.



Ander Oliden

Ez naz mezetara joaten, baina sinisten dutenentzat ondo pentsetan jat.



Francisco Romero

Berdin jat, ni gutxitan joaten naz eta.



Eulali Zuazabeitia

Asko gustau jat lokal barrixe. Ez dakit zeinek jarri dauen holako dotore, baine gustauko litxaket jakittie. Parrokixia baino leku intimuaa dala pentsau jat.

210. zenbakia. 2001eko martxoaren 23an.

Durana 11, 151 postakutxatila ARETXABALETA. Tel: 943 79 86 21. Faxe: 943 77 18 54 e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaleako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta. Erredakzio-kontseilua: Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna: Amagoia Lasagabaster eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak: Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia,

Rosa Del Aguila, Murrukixo mendi elkarte, Zarala mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.

Lege gordailua: S3378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaleako
Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

Goiena

Komunikazio Zerbitzuak

GOIENA PROIEKTUA AURRERA

Azken hilabete honetan, Goiena proiektua eratzeko urrats garrantzitsuak eman dira. Joan den martxoaren 5ean, Bergarako kultura etxean, Goienak eta bailarako euskara elkarrekin Goienaren esku utzi zituzten beren hedabide eta lantaldeen kudeaketa. Hamar egun beranduago, hau da martxoaren 15ean, barrez, Goiena kooperatibak eta-udalek izan zuten zita Aramaion. Bertan, 5 udaletxetako ordezkariak Goienako bazkide laguntzaile bihurtzeko hitzarmena sinatu zuten. Goiena komunikazio zerbitzuetako kooperatibaren lehen batzar nagusia ere egingo da. Martxoaren 31an Arrasaten elkartuko dira Euskadiko, herrialdeko eta bailarako herri agintariak, beste hedabide batzuetako gonbidatu askorekin batera. Azkenik maiatzaren 17an, Gasteizko merkatarien aurrean aurkeztuko da Goiena.



Komunitate desberdinetako 127 emakumek ikasi dute josten

Hiruatxek bukatu du Condegako proiektua

Hiruatxek, lan handia egin ostean, bukatu du Condega herrialdean martxan zekukan proiektua. APC Nikaraguako Kultur taldearekin lankidetzan hasi zuen Hiruatxek Condegako komunitadeari laguntza emateko proiektua. Bi alditan egin dira lanak. Lehenengoan, laguntza ematen hasi orduko, Mich hurakana etorri eta dana bertan behera gelditu zen. Orduan, Hiruatxek eginiko proiektua bideratu beharrean, dirulaguntza emateko erabili zen. Behin Condegako komunitateak

konpondu ondoren hasi ziren proiektua aurrera eramaten. Besteak-beste, fruta arborez osaturiko 52 ortu eta 41 oilategi egin dira. Horrez gain, 17 familiari behiak erosi zaizkie, eta 127 emakumezko josten ikasi dute. Hori guztia egiteko erabilitako dirua berriz ere, komunitadeko poltsara itzuli beharko dute laguntza jaso dutenek. Horrela, itzulitako diruarekin beste batzuei emango zaie laguntza. Condegako herrialdeak, berebizi eskertu nahi izan du atxabaltarrok emandako laguntza.

■ **OSOKO BILKURA**
ASTELEHENEAN Datorren astelehenean osoko bilkura egingo da udaletxean. Gai zerrendan 8 bat gai izango dira. Horieta bat, zinegotzi barriaren kargu hartzearen onarpena izango da. Jose Mari Armentia udal kirol zinegotzia zen, eta haren utzitako postua Agurtzane Elkorok beteko du. Bestetik, Jose Mari Armentia herriko ordezkari ere bazen Mankomunitatean, eta haren ordezkari bat ere izendatuko da.

■ **NANa EZ ERABILTZEA-REN ALDEKO ESKARIA** ABKk, Autodeterminazioaren Biltzarrak, bultzatutako desobediencia zibileko ekintzen alde dabilta lanean azken boladan atxabaltar batzuk. Nortasun Agiri Nazionala udaletxean erabili beharrik ez izatea eskatu dute. Horretarako, sinadura bilketa bat egin dute, eta herriko partidu abertzaleekin harremanetan izan dira. Azken hauen erantzuna ona izan denez, inizatibak aurrera egingo duela uste dute bultzatzaileek. Udalbiltzari eskatutako Euskal Nortasun Agiri ofizialarekin lotutako ekintza omen da egindako hau. Bestalde, ekimen honen barruan, duela aste batzuk, Bruselan eman ziren NAN-etako batzuk ere atxabaltarrenak izan ziren.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Iurre

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 07 34 - 943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

Apirilaren 2tik 3ra bitartean Korrika gurean

Hamar egun eskas falta dira eta zapatilak gertatzen has-teko ordua da. Egia esateko ez da entrenamendurik behar, izan ere hiru kilometro egin edo ehun metro egin, helburua euskara baita. "Mundu bat euskara bildu" esaten du 12. Korrikak eta Gasteiztik Baionara bidean bertsolaritza omenduko da. Martxoaren 29tik apirilaren 8ra bitartean Euskal Herriko herri gehienak zeharkatuko ditu euskararen lekukoak, eta gurean, apirilaren 2tik

3ra bitartean sartuko da Arrasatetik bueltan, gaueko 1:30ak inguruan.

Aek-ak bi urtero antolatzen duen martxa honen helburua dirua batzea da, euskara zabaldu ahal izateko dirua batzea. Aurten kilometroak 40.000 pezeta baliodu, eta herriko taldeek gura beste kilometro erosi ditza-kete, kilometroa bi talderen artean ere bana daiteke. Mugarritik Almeneko bide-kurtzeraino dagoen tartean hiru kilometro besterik ez daude, baina euskararen

alde dirua jarri duten talde guztien eskuetatik lekukoa pasatu dadin, ehun edo ehun eta berrogei eta hamar metroko zatituko da herria.

Arratsaldean ez da faltako ekintzarik

Herriko talde danak batzearen ezintasuna ikusita, udaleko kultur teknikariarekin batera Loramendi, euskaltegi, Kurtzebarri eskola eta udaleko langileen ordezkari-ek batzorde txiki bat osatu dute Korrikaren inguruko ekintzak antolatzeko.

Oraindik ez daukate dana zehaztuta eta mahai gainean agertutako ideiak lotu beharrean daude. Dana dela apirilaren 2an, arratsaldean, Korrika txikia egongo dela esan daiteke, herriko ikastolen eskutik izango da hau. Patinete martxa ere antolatu gura da eta gaueko 9:30ak aldera afari-merixenda egin gura da Korrikaren etorrera girotzeko. "Azkena" taberna ere afaria antolatzekotan ei dabil.

Egun batzuk lehenago, Loramendi euskara elkarteak eta Murruxiko eta Zاراia mendizale taldeek ere ekin-tza bana egingo dute Korrika dela eta. Martxoaren 29an, "Hiru pausu hiru norabide" diaporama eskainiko du Loramendik, Josu Iztuetaren eskutik. Honek Eskandinabian ibilitakoak erakutsiko ditu. Apirilaren 1ean, bestalde, Murruxiko eta Zaraiak mendi irteera egingo dute elkarrekin.

Euskaldunok zerbaitek batzen bagaitu euskarak batzen gaitu. Euskararen aurkako ekintzak barra-barra ugaritu diren urte honetan ahalegin txiki bat egin dezagun euskarari laguntzeko. Euskarak behar gaitu baina ez buruan, ezta bihotzean ere, ezpainetan baizik.



Apirilaren 3an goizaldeko ordu 1:30ak aldera Arrasatetik bueltan etorriko da korrika

sukaldeko altzarien eta horma armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14

INSERSOREN BIDAIA-RAKO EPEA ZABALIK

Inersok aurtengo urterako antolatutuen bidaietan izena emateko epea martxoaren 30a arte egongo da zabalik. Bidaietan parte hartzeko interesa dutenek udaletzeko gizarte zerbitzuetara jo beharko dute. Udaletxean edo Inersoren edozein bulegotan aurkeztu beharreko dokumentazioak, Nortasun Agiri Nazionala, dirusarreraren ziurtagiria eta osasun txartela dira. Bestalde, inersok antolatutako programa hauetan parte hartzeko 65 urtetik gorakoa, pentsionista, jubilatua, edo eta 60 urtetik gorako aurrejubilatua izan behar da derrigorrez. Ekintza honetarako, Euskal autonomi elkarteko pertsona nagusiei Gaztela Mantxako zirkuitoa egokitu zaie.

Bainuetxetan egonaldiak egiteko eskaera epea, barrez, jakin, maiatzaren 16an amaituko dela.



Itxi da herriko parrokia nagusia

Martxoaren 12an eman zen azkenengo meza herriko parrokia nagusian. Ordutik, asteburuko elizkizunak Mitarte kaleko bajo edo garaje batean ematen ari dira. Aldaketa honek, hainbat komentario piztu

ditu herrian, hala ere, beste irtenbide baten faltan, han emango dira aurreantzean mezak. Horretarako lokala margotu eta txukundu dute. Mezak lehengo ordutegi berean emango dira.



INSTITUTUAN GAU ESKOLAK

Gaur egun, egunez bakoarik ematen dira eskolak Aretxabaletako institutuan. Azken aldian, baina, gauez eskolak hartzeko eskaria izugarri handitu da. Hori dela-eta, Arrasate-Aretxabaleta institutuak zerbitzu hori emateko azterketa egiten ari dira egun hauetan. Nahi duenak beraz, bere eskaria egin dezake institutuan bertan. Datuen arabera, orain arte eskaria egin duten gehienak gaztetan ikasteari utzi ziotenak izan dira. Gaueko eskolak, arratsaldeko seietatik bederatziak bitartean emango liriteke. Eskola horietan, batxilergoa 3 urtetan bukatzeko aukera emango da. Eskaerak egiteko epea Apirilaren 20an amaituko da. Orduan jasoko dituzte datu zehatzak, eta horren arabera jakingo da, gaueko eskolak jartzeko beharra dagoen edo ez. Gaur egun, Arrasate-Aretxabaleta institutuan 640 ikasle ari dira beraien ikasketak egiten. Eskolak emateko, barrez, 98 irakasle daude. Ikasketa eta eskola guztiak egunez ematen dira. Inguru honetan Eibarren ematen dira mota honetako eskolak.

Gizarte laguntzaile barria udaletxean

Astelehen honetan hasi da lanean gizarte laguntzaile barria udaletxean. Mirari Ayastuyren amatasun baja betetzera etorri da, Leire Quintana Zamakola 26 urteko neska gasteiztarra. Beste lan batzuetan aritu da, baina, hau da gizarte laguntzaile moduan egingo duen aurreneko lana. Zorte on eta ongi etorri gurera.



Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

ARETXABALETAKO
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETAKO

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

Karapaixoa garizumako opari goxoa



Aretxabaleta okindegia

HAMABOSTEAN BEHIN



LEKU BILA?

Irudi polit hau atera zuen aurrekoan Inma Miguelek udaletxeko parkean.

Argazkian zikoin bikote bat duzue. Herrian hainbat buelta eman ondoren, hortxe gelditu eta bertan pasatu zuten goiza. Tamalez, arratsalde partean aldegin zuten herritik, baina gero Urkulun ere egon ziren.

PAILAZOekin PRIMERAN

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoez urteroko bisitaldia egin ziguten. "Parranda" izeneko antzezlanarekin, edarto pasa zuten bertara hurbildu ziren ume guztiak. Eta ez umeek bakarrik, gurasoak ere majo ibili ziren.



Zerbitzu berriak



AERO-FIT Tonifikazioa + Aerobika

Astearte eta ostegunetan 19'30 etik 20'30era



SALSA IKASTAROA

Larunbatetan 11'30etatik 13etara



AEROBIK TXIKI

Asteazken eta ostiraletan 16'45 etik 17'30era



Zainduz
OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

AIKIDO TXIKI

Astearte eta ostegunetan 16'45 etik 17'30era

Hargi Plaza, 6 • Tel.: 943 71 27 92 • Mob.: 658 75 80 12

Azken aldian haurrak izan, eta margo-tzeko denbora gutxiago gelditu bazaio ere, Idoiak ez du bere bertiko afizioa alboratu. Horren adierazgarri, herrian egin duen erakusketa bikaina izan da. Bertan, oleoz eginiko 26 lan aurkeztu ditu.



Idoia Elexpuru Margolaria

■ **Nondik datorkizu margolanak egiteko afizioa?**

■ Betidanik gustatu izan zait margotzea. Gaztetan, Agirrekin egin nuen ikastaro bat, eta ordutik margotzen dut. Gutxigorabehera 15 urte nituen orduan. Gerora, beste ikastaro batzuk ere egin ditut. Hasi nintzenetik, ikasten dihardut. Azken urte hauetan Juanjo Altuna margolaria-rekin ari naiz.

■ **Zer margotzen duzu?**

■ Denetik. Gutxien aurpegiak margotzen ditut. Paisaje eta bodegoiak azaltzen dira nire kuadroetan.

■ **Eta inspirazioa non bilatzen duzu?**

■ Argazkiekin egiten ditut nire margolan gehienak. Udan, eguraldi onarekin

kanpora joaten naiz noizean behin, baina gehienetan argazkiak ateratzen ditut gero etxean lasai lasai margotzeko.

■ **Zein material erabiltzen duzu?**

■ Dana oleoz margotzen dut.

■ **Zuretzat zer da margolaritza afizioa ala ofizioa?**

■ Nik afiziotzat daukat, baina batzutan enkarguak ere jasotzen ditut, beraz kasu horietan ofizioa da.

■ **Nondik ateratzen duzu margotzeko denbora?**

■ Eguerdietan egiten ditut lan gehienak. Umeek denbora dexente kentzen didate, baina urritik hona berri ere gogor hasi naiz lanean. Lehenago ere ibili

naiz tarteka lanean, baina, jarraikortasun apur batekin joan den urtean ekin nion barrero ere.

■ **Zenbat denboran egiten duzu kuadro bat?**

■ Gaiaren arabera, gutxiago edo gehiago. Izan ere gai batzuk zailagoak izaten dira beste batzuk baino. Orokorrean, kuadro bat 6-7 ordutan egiten dut. Margo lehiaketetan ibilia naiz, eta horietan landu dut kuadro bat 5 ordutan bukatzeko teknika. Beraz, nahiko azkar bukatzen ditut.

■ **Akatsetatik ikasten duzu?**

■ Bai. Nik betik kuadro bat bukatu bezain pronto norbaiti erakusten diot. Bere iritziak eta kritikak asko baloratzen ditut. Gainera,

horrek ziurtasun gehiago ematen dit.

■ **Zein ezberdintasun dago argazki baten eta zure kuadro baten artean?**

■ Margoa pintura bat da, ulertzen ez duen jendeak nire margotan argazkiak ikusi gura ditu. Hori errealismoarekin lortu daiteke, baina, nik inpresionismoa erabiltzen dut. Koloreakin jolastea gustatzen zait.

■ **Zer eskaini duzu zure erakusketan?**

■ 25 lan aurkeztu ditut, material aldetik garestiak dira, baina nire helburua batipat jendeari nire kuadroak gustatzea izan da.

■ **Margolari gustoko bat?**

■ Juanjo Altuna Arrasatearra oso gustoko dut.

12. korrika: takarraran, atxintxika, añiketan, lasterka...

Mundu bat euskarara bildu leluaz ekingo dutso aurtengo korrikiek. Martxuen 29xen urtengo da Gas-teizen, eta apirilak 8xen allegauko da Baionara, danera hamar egun iraun-go dauen lasterketie.

20 urte pasau die lehenengo KORRIKA egin zanetik, orduen Oñatin hasi zan eta Bilbon akabau zan. 20 urte asko die duda barik, euri asko ein ddau ordutik ona, gure zelaixek berdatu eta gorrittu ein die urte dan horreitten. Bi eta huts, da numerue. Huts asko daukou ondiok be hamen, gure eguneroko jardunien hutsek ugeri topetan dittugu. Huts honeik die niri ondiok, 20 urte pasau eta gero, amorruie emuten dustienak. Holako makro jai batek huts horreik ez dittu konponketan, dana ez dau KORRIKAK eingo, baine bai konturetu erain eta benetan aurrera eittie gure douenak batu. Hola batute, danok batera egunero topetan dien trabak bazartu eta aurrera ein bihe dou, onena KORRIKAN eittie izengo litzake, baine pausoka fanda be nahikue lan egoten danez, bakotxak ahal dauen moduen.

Aurtengo ediziñue, goixen ipini doten moduen hamabigarrena da. Arrautzak erosten dien letxe, guk be kartoie bete dou, ondo kostata! Niri elitxakitt gustauko beste bat betetera allegetarik, hori notizia ona izengo litzake. Izen be, zenbat indder, zenbat zapata urretu eta zenbat izerdi bota dien aurrera ein deigun. Batzuk Urkiolara faten urreketan dittue edo zittuen zapatak guk, barrez, urretu bihe doune miñe da, eta hortik etorriko jaku merezi douena. Horregatik, seguru nau Atxabaltatik KORRIKA pasetan danien erantzun ona euko dauela eta danok urtengo dozuela euskerien aldeko prozeziñora. Ollar, ollo eta txitta itxi olloteixe eta urten kalera!

Oin, barrez, guztiz erre nauen beste kontutxo batera pasauko naz. Ez dakitt konturetu zarien, baine Sanzen anaiek Atxabaltara be allegau die. Zubia aurrien dauen autobus parada ondoko kartela izen da erasue jaso dauena. Bertan Vitoria ipini daue, eta euskaraz bihe dan moduen ezenak erdi borraute itti dittue. Honek ze pentsaurik emungo dutsuela uste dot, eta holakuek gehixau izen ez dai-ttezen, KORRIKAN ein biheko da, benetako ofizialtasunen alde eta gure hizkuntzien bizixen alde.

Beste barik, animo eta alkar ikusiko dou gare apirilak 2xen goxeko ordu bixetan.

Irati PAGOAGA



Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak **BAKE EPAILEA**
eta **ORDEZKOA** aukeratzeko epea
zabaldu du.

Azken eguna: Apirilak 20

Informazio gehiago
udaletxean: 943 79 10 00



Aretxabaletako Udala


Grafologia, eskuz idatzitako edozein hizkiren bitartez, pertsonaren psikologia jakiteko gai den zientzia da. Izan ere, adituen esanetan, guztiok isladatzen ditugu gure gaitasun intelektual, jokaera moduak, besteekin komunikatzeko erak... gure idazteko forma eta moduan. Grafologian adituak diren pertsonak, nahiko izaten dute pertsona baten eskutiz bat, bere nortasun eta izaerari buruz hainbat ondorio ateratzeko. Izan ere, grafologia, mugimendua, espazioa eta forma kontuan hartuta, pertsonaren nortasuna, temperamentua eta izakera aztertzen saiatzan den zientzia da. Grafologoentzako, bakoitzaren idazkera, lengoia bat izateaz gain, gure keinuen erregistro grafikoa ere bada.

Grafologian nahiko izaten da ikertu gura denaren idatzi eta sinadura bat ikerketa sakon bat egiteko. Adituak, hizkien arteko tartekak, idazkeraren ordena, marjenak, hizkien norabideak, inklinazioak, eta beste ezaugarri asko aztertuko ditu.

Baina, benetan zertarako balio du eta zein eremutan erabiltzen da grafologia?

Grafologiaren erabilera

Grafologiaren inguruko teknikak, erabilera ugari izaten du lan eremuan. Giza baliabideetan esaterako, gero eta enpresa gehiagok eskatzen dute grafologian aditua den pertsona baten zerbitzuak. Horrela, etorkizunean enpresako langile izan daitezkeen hautagaiak aukeratzeko erabiltzen dituzte. Grafologoak, pertsona horren perfil psiko-



“ Adituek nahiko izaten dute pertsona baten idatzi bat, haren nortasunari buruz hainbat ondorio ateratzeko ”

logikoa egingo die. Metodo hau, adituen esanetan, pertsonal aukeraketaren artean, merkeena, azkarrena eta ziurtasun gehien eskaintzen duena da.

Haur hezkuntzan ere erabili ohi da. Gaur egun haurren gaixotasunak antzemateko metodorik egokiena da grafologia. Zientzia honen bitartez, haurrak, berak, kontzienteki ez dakizkien gauzak jakinaraziko dizkigu. Ondoren, haurrak jasaten dituen gaixotasun edo desbideraketa guztiak grafoterapiaren bitartez sendatu daitezke.

Kriminologian eta auzitegitan ikerketa kaligrafikoak egiteko erabiltzen da

grafologia. Sinadura eta testu faltsuak analisatzeko, eskutiz anonimoak ikertzeko, hildakoen testamentuak egiaztatzeko... horrelakoetan, oso erabilgarri izaten du polizia edo ikertzaileak grafologia.

Enpresek, giza baliabideetan bezala, giza harremanen eremuan ere erabiltzen du grafologia. Talde moduan lan egin behar duten pertsonen izaera ikertzen da. Horrela, enpresako arduradunek badakite beraien lantaldeak ondo funtzionatuko duen ala ez. Ezkon agentziek ere sarri erabiltzen dute grafologia. Bikotearen izaera eta nortasuna analisatuta hauen arteko bateragarritasuna nolakoa izan daite-

keen jakiten da. Ikerketa historikoetan, barrez, grafologiak hildako pertsonen eskuizkribuak ikertzen ditu. Pertsonai historikoen izaerak nolakoa ziren jakiteko erabiltzen da gehienbat.

Grafoterapia

Hitzak berak adierazten duen bezala, grafologian oinarrituriko terapia da grafoterapia. Estatu Batuetan eta Frantzia oso erabilia da. Besteak-beste, izaeraren akatsen zuzenketa egiteko, haur hezkuntzan laguntza emateko eta gaitxo eta atzeratuen berrabiltean erabiltzen da gehienbat. Horrez gain, hainbat ospitaletan, ebaketa kirurjikoetan tratamendua egiteko ere hasi dira grafoterapia erabiltzen. Eta harrigarria badirudi ere, metodologikoki zuzendutako ariketa idatzien bitartez, aurrerapen handiak lortzen ari dira grafoterapeutak. Medikuntza naturalaren elkarteko onarpena ere jaso du, duela gutxi.

IRUNE IBARRA

Grafologia irakaslea

Unibertsitatean Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnostiko metodoaren irakaslea izateaz gain, Irunek grafologiaren inguruko aholkularitzak egiten ditu. Oraingoan, Loramendi euskara elkarteak antolatutako ikastaro batean irakasle lanetan dihardu.

■ **Non eta nolatan ikasi zenuen grafologia?**

■ Etxean grafologiaren inguruko liburu bat neukan eta zer bait gehiago ikasteko helburuz Bilbon ikastaro bat egin nuen. Ordutik, Californian ere izana naiz ikasten. Orain, irakasle izateaz gain, kontsulta bat ere badaukat eta aholkularitza lanak egiten ditut, ikastaroak, hitzaldiak...

■ **Grafologia zientzia zehatza da?**

■ Giza zientzien barruan sartzen den jakintza bat da. Esango nuke psikologiaren barnean dagoen adar bat dela. Metodo bat bada ere, nahiko ikerketa egin dira gaur arte.

■ **Grafologiaren inguruko ikasketa ofizialik bada?**

■ Alemania edo Argentina bezalako herrialdeetan, adibidez, unibertsitatean ikasten da grafologia. Hemen barrez, ez dago horrelako ikasketa ofizialik.

■ **Ikastaro bakarrean zer ikas daiteke?**

■ Gauza orokorrak bakarrik. Ahal dudana informazio guztia ematen saiatzen naiz, baina idazkera mota asko ikusi eta aztertu beharra dago grafologian aditua izateko.

■ **Zuri pertsonalki zertarako balio izan dizu grafologiak?**

■ Azken urteetan nire ofi-



zioa izan da. Horrez aparte nire burua hobeto ezagutzeko ere balio izan dit.

■ **Zein motako kontsultak izaten dituzu?**


■ Grafologian oinarriturik terapiak egiten ditut. Gehinbat norberaren autoestima hobetzeko kontsultak izaten dira. Horrez gain,

jende ugari etortzen da nire kontsultara bere izakera nolakoa den jakiteko helburuz. Kasu horietan txosten pertsonalatuak egiten ditut.


■ **Eskatu diozu inoiz fama bati bere sinadura?**

■ Bai, idazle batzueri eskatu diet beraien sinadura.


Adibideak




Marjen oso irregularrek disziplina eta sistema eza, hunkiberatasuna agertzen dute.




Ezkerreko marjenik uzten ez dugunean, amaren gonapean babesten gara, etorkizunaren beldur.




Gorputza eta keinua behe-rantz doaz, porrotaren seinale legez; oso espresiboa da sinadura hau.




Batez ere, besteekin kontaktuan egotea eta lanean murgilduta egotearen erakusgarri da idazkera hau.




Espazio huts asko aurkitzean, pertsona horrek bakar-dadea bilatzen duela adierazten digu.



Pertsona honek, mugituko den guztietan bere arrastoa utziko du.



Ezkererantz makurtzen den idazkerak mesfidantza, zuhurtzia eta sentimentu minduak isladatzen ditu.



Norbere buruari kritika zorrotza eta isolamendurako joera nabari da testu honetan.



Mendia

Korrikaren alde mendi urteera. Korrika laster iritsiko da gurera. Hori dela eta, Murruxio eta Zaria mendi taldeek korrikako antolatzailen laguntzaz mendi urteera antolatu dute apirilaren 1erako. Ibilbidea honakoa izango da: Apotzaetxebarri, Apotza, Asensio, Untzila eta Isurieta. Untzilan hamarretakoa egingo da, eta trikitilariak egongo dira giroa alaitzeko. Urteera herriko plazatik izango da goizeko 9:00etan.

Mikel Morras, Aretxabaletan bizi den arrasatearra, udal txeko kirol zerbitsuak antolatu duen patinaje ikastaroko maixua izan da. Ikastaroak arrakasta handia izan du, eta seguraski beste bat ere egingo da datozen hilabeteotan. Mikelen iritziz, Urkulu da gurean, patinetan ibiltzeko lekurik aproposena.

■ Zer moduz joan da patinaje ikastaroa?

■ Oso ondo. Sei saio izan dira guztira, eta ikasleek patinetan ibiltzeko oinarriko ezagupenak jaso dituzte. Ikasitakoa hobetzen eta barneratzen joateko, hala ere, gauza guztiekin bezala praktikatu beharra dago.

■ Kirol zaila da ikasteko?

■ Ikastaro batean defenditzeko lain ikasten da, eta maila hortara iristea ez dut uste zaila denik. Hortik aurrera ondo ikasteko ordu asko sartu behar dira.

■ Hemen inguruan zein leku daude patinetan ibiltzeko?

■ Egia esan, ez daude leku asko. Lurzoru ona behar da.



Patinajea

Patinaje ikastaroa bigarren aldiz antolatuko da. Udaleko kirol zerbitsuak patinaje ikastaroa antolatu du. Orainsu ikastaro bat bukatu da. Hala ere, izan duen arrakasta ikusita bateatik, eta jendea kanpoan gelditu dela kontuan izanik bestetik, beste bat egitea pentsatu da. Zapatu goizetan emango da 12:00etatik 13:30era. Izena emateko epea martxoaren 28an amaituko da, eta kiroletxera jo behar da horretarako.

Urkulu adibidez, leku egokia da patinen gainean joan eta joan egiteko. Arrasaten Garagartzara bidean ere nahiko bide ona dago patinatzeko.

■ Zu zeuk non ikasi zenuen patinatzen?

■ IVEF ikasten ari nintzela, hantxe probatu nuen kirola. Gero Bilboko eskola batean egon nintzen sakonago ikasten. Harrezkero neure kontu dexente aritu naiz.

■ Gure inguruan afiziorik badago patinetan ibiltzeko?

■ Boladak izaten dira. Lineako patinak sortu zirenean izugarritzko boom-are egon zen. Orain ez dut uste horren afizio handia dagoenik. Hiriburuetan, dena dela, gehiago praktikatzen da, beharbada ibiltzeko leku gehiago daudelako. Hala ere, jendea ikusi ikusten da pati-



Txirrindularitza

Iban Sastre Euskal Herriko itzulira. Profesionaletako bigarren urtean itzuliz itzuli ari da Iban Sastre txirrindularia. Denboraldia hasi zuenetik, Mallorca, Andaluzia, Valentzia eta Murziako itzuliak korritu ditu. Hilaren 26tik 30era bitartean, Kataluniakoan izango dugu, eta apirilean Euskal Herriko itzulian hartuko du parte. Azken hau apirilaren 9tik 13ra bitartean izango da, eta zorterik onena opa diogu Festinako txirrindulariari.



Pilota

Bi bikote final aurrekoetan. Udaberriko pilota txapelketan final aurrekoetarako sailkatu dira Sergio Uriarte eta Odei Oyon bigarren mailako jubenilak. Bi pilotariek Oiarzungo pilotarien aurka neurtuko dituzte indarrak datorren asteburuan, lehenengo aurkarien frontoian eta bi aste barru etxean.

Errasti anaiak ere Intxaurrondoko neguko pilota txapelketan final aurrekoetara iritsi dira.

Mikel Morras Patinaje ikastaroko irakaslea

netan. Patinatzeko leku gehiago egongo balira, jende gehiago ibiliko litzatekeela uste dut. Hala ere, antolatu den ikastaroa oso arrakatsua izan da, eta jendea kanpoan ere gelditu da.

■ Pasiatzeaz gain zein modalitate eskaintzen ditu patinajeak?

■ Patinajeak hainbat aukera eskaintzen ditu. Pasiatu, saltoak egin, karrerak, taldeko kirola, hockey-a esaterako... Modalitate guzti hauek bakarka eta taldeka ere egin daitezke. Saltoek abentura eta arrisku puntu bat ematen diote kirolari, hori da agian kirol honetan ikasteko zailena.

■ Zer lantzen da kirol honekin?

■ Batez ere beheko ataleko giharren indarra eta erresistentzia lantzen dira, nahiz eta enborraren goi eta behe

aldeko giharrak tentsioan egoten diren. Horretaz gain, erresistentzia kardiobaskularra eta oreka hobetzeko oso kirol aproposa da.

■ Zu zeu asko ibiltzen zara patinatzen?

■ Neguan ez horrenbeste, baina udaberri eta uda aldean bai. Urkulun edo eta Garagartzarako bidean ibiltzen naiz normalean.



■ KIROLETXKO ERABIL-TZAILEEI GALDETEGIA

Kiroletxean bezeroen iritzia eta nahia jakin asmotan galdetegi bat egiten hasi ziren joan den astean. Galdetegi horretan kiroltxea erabiltzen duten bezeroen iritzia desberdinak jaso gura dira, besteak beste instalazioen kalitatea, garbiketa maila, ordutegia, kirol jardueren eskaintza etabar. Inkesta egitearen proposamena tesi bat egiten ari den pertsona batena izan da. Honek inkesten emaitzak aztertuko ditu, eta balorazio bat egingo dio ondoren, kirol zerbitzuari. Gainera, inkesta hau Gipuzkoako beste kiroltxe batzuetan ere egingo da, eta ondorioz, datuak konparatu ahal izango dira. Galdetegia bi astetan erantzuteko aukera egongo da.

■ MENDIRA ETA SAGAR-DOTEGIRA URTEERA

Murrukixo mendi elkarteak apirilaren 8rako Txindoki mendira urteera antolatu du egun guztirako. Gero sagardotegi batean bazkalduko da. Autobusez egingo da joan-etorria. Interesatuta zaudetenok Murrukixoko lokaletik pasatu martize-netan 19:30etik 20:30era.

Udako preferentea seigarren garaipenaren atzetik

Udako preferenteak bost partidu irabazi ditu jarreraian, eta sailkapenean zazpigarren postua eskuratu du. Bigarren postutik zazpi puntutara bakarrik daude. Bolada ona aprobeztatuz, hurrengo partidua ere irabazteko asmoz zelairatuko da taldea. Datorren norgehiagoka kanpoan izango dute, Gwendolyne Iruneko taldearen aurka.

Udako gainontzeko taldeek ere emaitza onak lortu zituzten azken norgehiagokan. Lehen mailako jubenilek 3-1 irabazi zuten Idiazabalen aurka. Uda-Almen lehen mailako kadeteak ere 3-1 gailendu ziren. Bigarren mailako kadeteek Aurrera Ondarroari 0-8 irabazi zioten. Eta maila honetako B taldeak ere garaipena eskuratu zuten

Uda B 3 Urki 1. Bukatzeko, infantilek Ilintxa taldearen aurka bana berdindu zuten.

Udako zuzendaritzatik gazteei mezua

Martxoaren 31a arteko epea jarri zuen Udako futbol taldeak zuzendaritza batzordeko hautagaiak aurkezteko. Oraindik ez da inor aurkeztu, eta kalean ere ez da inor aurkeztuko den zurrumurrurik entzuten. Horrek kolokan jartzen du herriko futbol taldearen etorkizuna. Berrogeita hamar urtetik gorako historia duen talde honek, gaur egun federatutako bederatzita talde eta 200 bat lagun ditu.

Udako zuzendaritzatik herriko gazteei batez ere, erreleboa hartzeko deia luzatzen zaie.



■ DORLETAKO AMA TALDEKO INFANTILAK DENBORALDIA HASTEKO GERTU

Martxoaren 31n hasiko dute denboraldia Dorletako Ama txirringulari taldeko infantilek. Talde honetan Julen Galiano eta Aitor Mendizabal arituko dira Aretxabaltatik. Arrasate kirolak taldearen babesean Oñatin, zirkuito itxi batean, korrituko dute lehen karrera. Gainontzeko hiru taldeek dagoeneko hainbat karrera izan dituzte. Lehen mailako kadeteek Lazkaon korrituko dute datorren domekan. Jon Rodriguez eta Jon Lete taldekideek bi karrera egin dituzte, eta ondo ari dira. JMako bigarren mailako kadeteek ere hirugarren karrera izango dute datorren zapatuan Hernanin. Maila honetan Mikel Arana eta Mikel Katania arituko dira. Azkenik, Fagor taldeko jubenilek Antzuolan korrituko dute datorren domekan.



Bigarren postutik zazpi puntutara dago preferentea



Lubia

EMAKUMEENDAKO
SANDALIAK

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00
ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia


IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

Jesus Berezibar arrasatearra herriko taxista barria da. Orain hiru hilabete inguru ekin zion taxista lanari Jesus Martinezek utzitako lekua betez. Gidatzeaz gain, xakea ere gustuko du. Arlutz xake taldean jokatu izan du.

Jesus Berezibar

"Lanean ari nintzela, taxi bat eskatu behar izan nuen"



■ Noiztik taxista?

■ Orain hiru hilabete inguru hasi nintzen, Jesus Martinez jubilatu zenean, harek utzitako lekua hartu nuen.

■ Lehenengo aldia da horrelako lan batean ari zarena?

■ Bai, taxista lanetan bai, baina gidari moduan ez. Kamioiak ere gidatu izan ditut.

■ Eta zer gurago kamioiak ala taxiak gidatzea?

■ Taxiak, gurago dut pertsonekin lan egitea merkantziekin baino.

■ Zein kotxe daukazu?

■ Mercedes beltz bat.

■ Beltza?

■ Bai, kolore beltza asko gustatzen zait, kotxe dotorea da, apur bat zikina izan arren.

■ Zenbat taxista zaudete herrian?

■ Hiru, eta nahikoa dira.

■ Zeintzuk dira zure bezeroak?

■ Kooperatibekin, adibidez, lan asko egiten dut.

■ Nora egin duzu bidaiarik luzeena?

■ Italiara.

■ Bidaia motzak ala luzeak gurago dituzu?

■ Luzeak.

■ Zer da zure lanbidetik gehien eta gutxien gustatzen zai-zuna?

■ Gehien gidatzea gustatzen zait. Eta gutxien ere gidatzea esango dut, batzuetan kokoteraino bukatzen duzu eta.

■ Bitxikeriarik?

■ Behin Bilbon leku bat ezin aurkitu, eta neuk ere taxi bat eskatu behar izan nuen.

■ Zein eguraldirekin gustatzen zaizu gidatzea?

■ Edurrarekin asko, baita euriarekin ere.

■ Bildurrik pasatu duzu sekula zure lanbidean?

■ Ez, zorionez oraindik ez.

■ Bromazko deiak jasotzen dira?

■ Oraindik ez dut horrelako kasurik izan.

■ Lan kontuak alde batera utzita, herriko xake taldean ere jokatu izan duzu.

■ Bai, Arlutz A taldean aritu izan naiz jokatzeko. Dena dela, aurten lana zela eta, utzi egin behar izan nuen.

■ Eta nolatan arrasatearra izanik Aretxabaletako taldean?

■ Urte batzuk badira Aretxabaletako taldean jokatzeko hasi nintzela. Nire maila hobetu gura nuen, eta horregatik hasi nintzen hemen. Maila handia du Arlutz taldeak. Aurten ere Euskal ligan mantentzea lortu dute, eta ez da gutxi.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Horma armairuak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaia
- ◆ Beirate "fusing"ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea ☎ 943 79 81 78 / 6700997274



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76



**FELIX
PAGALDAY**


Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

4. IBILBIDEA

ARETXABAETA-MURRUKIXO-LARRINO-AREANTZA-MENDIOLA-LETE-ESKORIATZA-ARETXABAETA

Luzera: 13,2 kilometro - Denbora: 3 ordu 25' (4 km orduko)



Aretxabaetatik kanposanturantz abiatuko gara. Bidean Santutxuko ermita dago ezker aldean, 1994an berritua. Aldamenean harri bat du. Lehen hildakoak lurperatu aurretik kaja bertan utzi, eta errezatzeko erabiltzen zen. Horregatik dago harrizko gurutzea ermita parean. Kanposantuko bidea jarraituz Errotetxe eta Hospital baserriak daude. Kanposantuaren sarrean, barrez, lehenagoko Bedarretako San Migel parrokiaren ataria ikus dezakegu. Arku erromanikoa du. Handik gora, Elizgarai baserrira helduko gara. Baserria ezkerretara utzita, goruntz dijoan pista hartuko dugu. Pista hau aurrera jarraitu behar da, lau bide dituen bidekurtze bat aurkitu artean. Bidekurtze honetara heltzen garenean,

ezkerrera doan bidea hartuta, Murrukixo izeneko iturria aurkitzen da. Oso gordeta dago, eta sartu berri duden zuhaitzak aurkituko ditugu han (30'). Barriz bidekurtzera etorriko gara, eta eskumatara doan bidea jarraituko dugu, bide honek Oro auzora eramango gaitu. Oro auzora heltzean, aska batera iritsi, eta hortik ezkerretara doan pista hartuko dugu, (bide hau horiz eta txuriz markaturik dago). Bide honek Larrinoko San Kristobal elizatik aurrera garamatza. Hemendik Zuatzu baserrira pasatu eta Urkulura jaitsiko gara. Hemen eskumatara hartu eta Iraban (Irebean) baserriraino joango gara. Bidegurutzean eskumatara eginez, Areantza auzora helduko gara (1:25'). Areantza auzoan dagoen Iraileko eliza pasa eta aurrerago, hilerrian, San Bixente ermita dago eskumatara. Aurrera jarraituz Mitarte Garai nekazalturismo etxearen ondotik pasatuz, Bolina auzora doan bidezidorra jarraitu behar da. Auzoa eta

Atxurdir baserrira pasa eta ezkerretara bide bat dago. Bide hau hartu eta Mendiolako Olabena baserrian agertuko gara. Hemendik gora egin eta laster gaude Iturrondon. Iturri bat dago bertan. Pixkat gorago eginez Mendiolako San Juan Batailatzailearen elizan agertuko gara (2:15'). Mendiolako hilerrian ere beste ermita bat dago, San Jorgeren oroimenez eraikitakoa. Lehena santu honen omenez, beste ermita bat zegoen Mendiolan, Sanjurji izeneko. Ermita hau 1819. urtean egoera txarrean egon arren, zutik zegoen oraindik.

Mendiolako monumentutik aurrera, Ariara (Arianora) joango gara. Bertan aurkitzen ziren Sanjurji ermita eta Garbarrena baserrira. Dagoeneko ez dago ermitaren aztarnarik, baina bai Ga-



barrena baserrikoak.

Bidean aurrera egin eta Madinabeitia baserria pasa ondoren, eskumatara senda txiki bat dago. Handik jaitsiz gero Ariako iturria aurkituko dugu.

Bidean aurrera egin eta pista jarraituz, Iregi baserriaren behealdeko pista hartuko dugu. Laster "Bideko Ama" dagoen bidegurutzera iritsiko gara (2:35').

Ama Birginatik goruntz joanez gero Puntiatatik edo Ametzutik Mandobidera sar gaitezke. Eskoriatzara joateko, barriz, bi bide ditugu:

Aurrera jotzen badugu, Eraña auzora goaz. Han Iturgain eta Erañagarai baserrien bitartean, ezkerretara, San Andres apostoluaren ermita dago. Sarrerako arkua gotikoa dela dirudi, horregatik XVI-XVII. mendekoa izan daitekeela uste da. Ermitan sarkofagoak ere ikus ditzakegu, eta handik gertu Esteibarko bainuetxera zihoan ura ere edan dezakegu. Erañatik aurrera, Atxtroki haitzetatik pasatuz (Kristo aurreko ,VIII-VII mendekoa izan daitezkeen urrezko ontziak aurkitu ziren lekua) Eskoriatzara goaz.

Ama Birjinitatik behera hartuz, barriz, Eskoriatzara eta Letera joango gara. (Gu hemendik joango gara.)

Garaikua baserria dago berehala, eta hor, ezkerretara doan bidea hartu behar da. Bide hau jarraitu Santa Lutzia ermitara heldu arte (2:40').

Santa Lutzia ermita, luzea eta estua da. Nahiz eta bere ate gaineko harrin Bolibarrekkoa dela jarri, ermita hau Leetekoa da. Frantziako gobernuaren aginduz, Leeteko Santa Lutzia eta Erañako San Andres ermitak hilerri bihurtu ziren, 1809. urtetik 1819. urtera bitartean.

Aldamenean Santa Lutzia baserria dago, lehen Merzedaria monjen kon-

bentua izandakoa. Bertatik bajatu ziren monjak Eskoriatzara, eta esaten duteenez, klausura ez apurtzeko asmoz, leratan (egurrez eta arramez egindako tri-neoetan) bajatu zituzten.

Litekeena da, gaur egun baserria dena, garai haietan, Leeteko Santa Anaren (Merzedarien monja) konbentua izatea. Ordena horretako monjen Euskal Herriko konbenturik zaharrena. Ibilbidera bueltatuz, hemendik Eskoriatzara jaisteko, barrez, lehengo bidera urten, eta beherantz joko dugu, Eskoriatzako hilerriara heldu arte (2:55').

Kanposantutik behera jaitsi, eta Sorautz baserrietik kalera bitartean garai batean Eskoriatzako ola izan zenaren aztarnak ikus daitezke. XVIII. mendean hasieran burdinola bat eta gari errota bat kokatzen ziren bertan, kanaletik zetorren urak eragindakoa. XX. mendean hasieran, barriz, Eskoriatzako lehen sukaldeko ontzien fabrika bihurtu zen. Eta 1932tik 1968ra zentral elektriko baten indarra sortzen zuen.

Aingeru Guardako ermita ere ikus daiteke Eskoriatzan, baina Leintz Gatzagako bidekurtzean geratzen denez, hurrengo baterako utziko dugu, eta gu Aretxabaletara etorriko gara (3:25').



Bideko Ama



Santa Lucia ermita



Murrukixoko iturria



San Andres

**San Migel
erretegia**

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71



**ANDRA
MARI**

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

**Mobiliario
ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Marti

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72



Txutxumutxu ugari

Txutxumutxu ugari entzun da mezak Mitarteko lokalean eman behar zirela-eta. Dagoeneko lehenengo elizkizunak egin dira bertan, eta orokorrean jendea gustura gelditu da. "Dotore ipini dute", "txukun eta garbi dago"... moduko esamesak entzun dira. Kontua da, fede duenak han edo hemen gustura egon beharko lukeela, zaratarik atera barik. **Martin Arana** arrasatearra da Mitarteko lokal hori, eta honek doanik utzi du elizkizunak egiteko. Parrokiako lagunak esker ona luzatzen diote, izan duen borondate eta eskuzabaltasun haundiagatik.

Elizako kontuetatik asko urrundu barik, zorte oneko izan dira **katekesiko lagunak**. Aurrekoan primitiba tokatu zitzairen, 200.000 pezeta. Kantitate hori zenbaiten artean zatitu beharko duten ez dakigu, baina horrelakoetan, gero eta jende gehiago egon, pastelaren zati txikiagoa tokatzen da. Hala ta be, ez dago txarto, niri behintzat ez zait oraindik ezer egokitu. Denboratxoa daramat jokaketan, baina nik ez ditut ez, poltsikoak primitibaren kontu beteko.

Beste herritar batek ere zortea duela pentsatuko du batek baino gehiagok.

"Gran hermano" Tele 5ko programa gertu-gertutik biziko du **Edu Abasolok**. Izan ere, programa horretan hasi da lanean. ATBtik EITBra egin zuen salto, eta orain Tele 5ra. Barru-barrutik eza-gutuko dizkigu Eduk etxe hartan gertatzen direnak, baita trapu zahar guztiak ere.

Aurrekoan, gertu-gertu izan genituenak zikoinak izan ziren. Ez dakit leku bila etorri ziren, baina, hura zen ikuskizuna eskaini zutena! Biak udaletzeko lorategian egon ziren denbora luzez. Antza denez, gure herria ez zitzairen larregi gustatu, beharbada parrokia obretan dagoelako, eta arratsaldean beste nonbaitera aldegin zuten.

Txutxumutxuekin hasi eta bukatuko dugu gaurko jarduna. Herriko gazte talde bat futbol talde bat sortzekotan dabilela jakin dut. Lehengoak ezin mantendu eta beste bat sortu gura. Udak, barrez, jende gaztea eta barria behar du elkarte zuzentzeko. Futbola gustatzen zaizuenok hortxe daukazue aukera, herriko futbolari aire barria emateko.

Bueno eta ahaztu aurretik, gogoratu korrika bada-torrela. Nik behintzat badaukat korrika egiteko asmoa, eta zuek ere animatu.

M. J. Arcaña

0 URTETIK AURRERA

- ¡Chaf! / Philippe Corentin
- Untxitxo Txuria / Portugalgo herri ipuina ; Xose Ballesteros eta Oscar Villan
- Baloia eta katua / Mireia Sánchez , Pau Estrada
- Hondartzako eguna / Miren Sánchez , Pau Estrada

6 URTETIK AURRERA

- Trena eta ilargia / M. Angels Bogunya
- Hodei tripaundia / Antoni Cuadrench i Fort
- Deabruaren zubia / ipuin herrikoia ; egokitzailea, Jordi Vinyes
- Txoria zezenaren adar gainean / Joxan Ormazabal
- Jonasen pena / J.K. Igerabide

8 URTETIK AURRERA

- Antzezten..teketen ten! / Aitzpea Goenaga
- Leo Ferguson / J.K. Igerabide
- Erreka Mari / Enkarni Genua
- Kikik Koko nahi du / Txiliku

10 URTETIK AURRERA

- Bi malko makinarengatik / Fina Caslderrey
- Zookalako erregeak / Inongo Vi Makome
- Eskeleto bat hegazkinez / Thomas Brezina
- Baleen haranean / J.A. Telletxe Isusi

12 URTETIK AURRERA

- Ondina / Friedrich de la Motte Forque
- Ipuinak hain zuzen / Rudyard Kipling
- Ezta inola ere / Christine Nöstlinger

NOBELAK

- Lisboako setioaren historia / Jose Saramago
- Fantasiako ipuinak / Guy de Maupassant
- Kamaleoienezako musika / Truman Capote
- Manhattan Transfer / John Dos Passos
- Gezurak, gezurak, gezurak / Iban Zaldúa
- Onan / Aitor Arana

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

Galdera eta erantzun okerrak:

- Zein ein dau marrazki hau?
- Mikel.

Galdera eta erantzun zuzenak:

- Zeinek ein dau marrazki hau?
- Mikelek.



MARTXOA

23-1

**■ MARGO
ERAKUSKETA**

Idoia Elexpururen margo lanak ikusgai daude martxoaren 16tik apirilaren 1a bitartean Durana kaleko 30. zenbakiko erakusketa txoan. Azken hilabeteotan egindako 26 lan jarri ditu ikusgai. Orduetia astegunetan 18:30etik 20:30era eta astebukaretan 12:00etatik ordu 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

25 DOMEKA**■ MENDI URTEERA**

Zaraia mendi taldeak Etxaguenera mendi urteera egingo du. Ordua goizeko 7:30ean izango da Zariaiko lokaletik.

28 EGUAZTENA**■ AEROBIC ETA AIKIDO
ERAKUSTALDIA**

Zainduz osasun eta fitness zentruan aerobic txiki eta aikido txiki era-

kustaldia egingo da. Arratsaldeko 18:30etik 19:30era bitartean izango da Zainduz zentruan.

29 EGUENA**■ ZINE KLUBA**

"Blade Runner" film amerikarra ikusgai egongo da kultur etxean. Gaueko 22:30ean hasiko da.

■ HITZALDIA DIAPORAMA

Hirupauso hiru norabide. Josu Iztueta. Korrika kulturala. 7etan

30 EGUAHOTXA**■ KONTZERTUA**

Anje Duhaldek kontzertua emango du Kurtzebarri eskolako aretoan. 22:30ean. Loramendi Elkarteak antolatuta.

31 ZAPATUA**■ GOIENAKO BATZAR
OROKORRA**

Lehen batzar nagusi arrunta egingo du Goiena komunikazio zerbitzuak. Euskadiko kutzak Olandixon duen

areto haundian izango da. Eguerdiko 12:00etan hasiko da.

APIRILA**1 DOMEKA****■ MENDI URTEERA**

Korrikaren aldeko mendi urteera antolatuko dute Murruxiko eta Zariaia mendi elkarteek. Ibilbidea: Apotza, Asensiomendi, Untzila, Isurieta. Urteera goizeko 9:00etan herriko plazaatik.

3 MARTIZENA**■ KORRIKA**

Goizeko ordu 1ak inguruan Korrika Arrasate aldetik etorriko da eta Aretxabaleta zeharkatuko du. Herriko hainbat taldek testigua eramango dute.

5 EGUENA**■ ZINE KLUBA**

"Taxi driver" film amerikarra ikusgai egongo da kultur etxean. Gaueko 22:30ean hasiko da.

BESTELAKOAK**■ ZINE KLUBA**

Atzo jarri zen martxan zine kluba herrian. Zine alternatiboari indarra ematea du helburu ekimen horrek, eta ostegunero botako da pelikula bat. Atzo esaterako "La haine" film Frantsesa ikusteko aukera izan zen. Datorren astean, hilaren 29an, "Blade Runner" film amerikarra botako da, eta hurrengoan, apirilaren 5ean, "Taxi driver", hau ere amerikarra. Aste Santuko oporrak artean hiru filme hauek izango dira, gero bi asteko deskantsua izango da. Film guztiak kultur etxean izango dira 22:30etik aurrera. Zine klubaren proiektua herriko gazte batzuen izan da. Mundu hau gustuko dute, eta horrez gain, pelikula komertzialak alde batera utzi, eta alternatiboak kaleratzea da asmoa.

BALITAKUK (Hikaz berbetan)

Mikel Arroiabe

Aretxag

Zorion agurrak



Ibone Andres
Martxoak 3
Etxekoan partetik zorionak.



Jose Ignacio Altube
Martxoak 19
Familiaren partetik zorionak.



Julen Arriola
Martxoak 25
(3 urte)
Zorionak etxekoan partetik.



Bienvenido Velasco Prias
Martxoak 21
Gurasoen partetik zorionak.



Jose Benito Ayastuy
Martxoak 21
Zorionak aitita.
Josu eta etxeko guztion partetik zorionak.



Alaitz Aldai
Martxoak 25
(3 urte)
Aita, ama, Oihana eta Itsason partez zorionak eta muxu haundi bat.



Boni Diez
Martxoak 19
Zorionak etxekoan partetik.



Ibon Altube Garcia
Martxoak 28
Zorionak eta muxu haundi bat zure laugarren urtebetetzean.



Arantzazu Zuazabeitia
Apirilak 1
Aurtenguen ez jaku pasau. Zorionak zure kulturako lagunaren partetik.



Katalina Gabilondo
Apirilak 1
Etxekoan partetik zorionak eta ondo pasa eguna.



Miren Josune Maskariano
Apirilak 2
Zorionak Pitu!
Ondo pasa eguna.
Tragoen zain gaude. Iratxe, Asier eta Jon.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

Txistuak • Txaloak

Naturari behin eta barriz eraso egiten dionik bada gure herrian. Bakean dagoenari ezin bakean utzi, horixe da batzuen bizi-filosofia. Argazkian ikusten duzuen moduan, aurrekoan norbaitek Santa Kurtz kaleko trenbidean dagoen zuhaitz honi arrama apurtu zion. Egia esan, bi zuhaitz izan ziren kaltetuak. Honen aurretik ere leku horretan dauden beste arbola batzuk ere, hainbat eraso izan dituzte.

Oraindik arbola gazteak direnez, arrama apurtu ondoren, uda heltzean samur ihartzen dira. Zuhaitz horrek ere ez dakigu aurtengo uda pasatuko duen. Horregatik **txistua** zuhaitz horri arrama apurtu dionari.



Jaiotakoak

■ Eneko Baladron Diez

Martxoaren 4an.

■ Hildakoak

■ Jose Luis Arenaza Elorza

Martxoaren 10ean. 78 urte.

■ Lorenza Lasagabaster Villar

Martxoaren 11n. 84 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Mendiolarren futbol partidua

Mendiolako auzotarrek futbol partidua antolatu zuten 60. hamarkada hasieran. Talde batean Aria parteko mutilak zeuden, eta beste aldean, Elizondo, Uxarte, Bolina, Atxurdin eta Olabenak. Partiduan bildotsa zegoen jokoan, eta Aria aldekoek irabazi zuten penaltis 1 eta 0. Galdu zutenek bildotsa ordaindu, eta danek Mendiolako *auzo-salan* afari eder batekin ospatu zuten

desafioa.

Mendiolako futbol zelaia arrakasta handia izan zuen bere garaian. Auzotarrez gain, inguruko herrietako jendea ere joaten zen futboleko jokatzera. Bizitasun handia eman zion futbol zelaia auzoari. Astebukaeretan partidu piloak jokatzeko ziren, eta orduan tabernarik ez zegoen arren, abadetxe bodegatxoan Felipe Arkauzek ardua ematen

zuen, eta Maritxu Iturbek bokadiloak gertatzen zituen. Argazkikoak: **Jacinto Arkauz, Jose Arkauz, Benito Arriola, ezezaguna, Alfonso Astaburuaga, Higinio Etxabe, Juan Arenaza, Luis Arando, Jose Maria Gastiasoro, Mauricio Iturbe, Esteban Lete, Leonardo Madinabeitia, Claudio Arriola, Felix Aldai, Francisco Arriola.**

Argazkia eta informazioa: Higinio Etxabe.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

TABERNA ETA JATETXEEN GIDA

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Kafetegia
eta
taberna

H A I Z E A

Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

Gurea taberna

*Eguneko menuak
plater konbinatuak*

GUREA

Durana kalea • 943 79 20 64

Express



Santa Kurtz, 16
943 79 23 43

zure gustoko giroa

Arlutz taberna



MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Gustoko musika

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Artano taberna

Herriko plazan
ARTANO

Girorik onena Herriko plaza, 3
943 79 62 75

Mendiola erretegia

ESKORIATZA



Tfno 714345

Bazkariak
eta afariak

Astelehenetan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

Baster alde jatetxea



SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

Galaritza auzoa
943 79 24 58
ARETXABALETA

Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
943 79 94 15

Mitartegarai

*Mitartegarai
Jatetxea*

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



Josu taberna

*Josu
harategia
taberna*



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak


Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA



RENAULT

**Renault Laguna berriak
toki harrigarrietara eramán zaitzake**



GILTZA BARIKO AUTOA AURKEZTEN DIZUGU



MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72